


**NI ETA NIRE TALDEA****IKASTETXEKO GIRO ONAREKIN BAT****1. Karta sorta**

Talde bat eraikitzean denon artean lortutako akordioak errespetatzeak ahaldu egiten du taldea. Hori berma daiteke **lankidetzan oinarritutako konpromisoari helduz gero**. Horretarako, —guztien jokabideen jarraipenean denok parte har dezaten—, baliabide egokiak sortu behar dira. Baliabide horiek era sistematikoan erabiliko dira eta lagungarriak izango dira adostutako jokabideak ohitura bihurtzeko. Kasu honetan, **karta sorta** erabiliko da.

Jarduera hau egin baino lehen, komeni da  ariketa egitea, gelan giro lasaia egon dadin eta ikasleek horrelako ariketak egiteko ohitura har dezaten.

**HELBURUA**

- Gelako arauak islatuko dituen 12 kartako sorta bat sortzea.
- Parte-hartze aktiboa izatea.
- Nork bere burua ebaluatzea.

**GARAPENA**

Aurretik egindako jardueran ateratako errespetuarekiko arauak erabiliko dira karta sorta bat sortzeko. Irakasleak aukeratuko ditu errespetu-eremu bakoitzetik hiru arau.

Ikasleak **binaka** jarriko dira eta irakasleak 12na arau edo jokabide banatuko dizkiei bikoteei; bikote bakoitzak egokitu zaizkionekin kartak sortuko ditu. Kartaren alde batean BAT logoa eta errespetu-eremua azalduko da eta bestean hori lortzeko jokabidea edo araua.

**Ez da komeni arau gehiegi izatea**

Astero karta bat aukeratuko du irakasleak eta gelak konpromisoa hartuko du aukeratutakoa errespetatzeko. Karta sorta baliabide irekia izango da. Ikusten bada behin baino gehiagotan ematen dela errespetu faltaren bat eta horretarako kartarik ez dagoela, jarrera desegoki hori izaten ari den ikasleak sortuko du jokabide hori zuzentzeko karta.

“**Ni eta nire taldea**” blokea bukatzeko, irakasleak ikasleei gogoraraziko dizkie egindako jardueren helburuak: ikaskideak hobeto ezagutzea eta denon artean giro ona izaten ahaleginak egitea. Arbelean, denon artean, esaldi hau osatuko dute:

Gela honetako ikasleak .....gara

Denok gustura egoteko..... egin dezakegu eta .....gingo dugu.




## NI ETA NIRE TALDEA

Irakasleak argazkia aterako dio eta gelako BAT panelean itsatsiko du.

### DENBORA

Saio bat

### BALIABIDEAK

- Eranskina: "Karta"
-  jardueran egindako errespetuari buruzko 12 arauak
- BAT Karpeta